



2009KO APIRILAREN 23KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko apirilaren hogeita hiruan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio eta Iñaki Saldaña Herrero.

Felix Urkola Iriarte eta Javier Moreno González de Lara zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adireraziko da Juan Manuel Serna Portugal zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2009ko urtarrilaren 15ean egindako ez-ohiko, 2009ko urtarrilaren 15ean egindako presako ez-ohiko, 2009ko urtarrilaren 29ko ohiko, 2009ko otsailaren 3ko ez-ohiko eta 2009ko martxoaren 12ko ez-ohiko osoko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

***II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Juan Manuel Serna Portugal zinegotzia bertaratu da.

III.- 2008KO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN ETA TXERTATUTAKO KREDITU BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Osoko Bilkurari 2007ko aurrekontu likidazioaren berri ematen zaio.

Halaber 2009ko aurrekontuari egindako kreditu txertaketa bidezko 1 zbk.dun kreditu aldaketaren berri ematen zaio Osoko Bilkurari. Txertatzen diren kredituak guztira 666.279,00 euro dira, 2008ko likidazioan txertagarri gisa gelditu ziran guztiak eta kreditu hauek finantzatzeko, diruzaintzako gerakina eta Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak onartu-

...///...

tako dirulaguntzak hala nola haurtzaidegi eraikuntzarako San benito Ikastolarekin izenpetutako hitzarmenean, honek, finantzaketarako hartutako ekarpen konpromezuaren zenbatekoa hartzen dira.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du inbertsioetako partidak izanik eta azken urte hauetan beti alde bozkatu ohi izan badute ere, proposamena ez datorrela bat Ogasun Batzordean planteatutakoarekin eta horregatik abstenitu egingo direla.

Alkateak erantzuten dio, pertsonaleko zenbatekoei buruz Ogasun Batzordean esandakoa aurrikuspen baten konstatazioa izan zela, hau da, urtea amaitzerako ehun bat mila euro gehiago beharko zirela aurrikusten zela, eta ez zela esan nahi kreditu aldaketa honetan sartzeko zenbatekoa zenik, fondo foralaren likidazio negatiboarena esan zenean bezalaxe; elizako errelojuaren kanpaiarenari buruz esaten dio gaia hirigintzako batzordearen bilera batean tratatu zela eta elizako erloju-kanpaiaren mantenimendua udalak daramanez, ogasun batzordean hutsegitez azaldu ez bazen ere, gero hutsegiteaz konturatu eta sartu egin dela.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta aldeko 8 botu (EAJ, EB-B), aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (PSE-EE), honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
I	Pertsonalaren gastuak	17.000,00 €
VI	Inbertsio errealak	486.753,32 €
VII	Kapitaleko transferentziak	10.000,00 €

...///...



...///...

GEHIKUNTZAK GUZTIRA	513.753,32 €
----------------------------	---------------------

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VII	Kapital transferentziak	237.921,28 €
VIII	Aktibo finantzarioak	275.832,04 €
GUZTIRA		513.753,32 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- HAURTZAINDEGIAREN ERAIKUNTZA LANEN 3., 4. ETA 5. OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

San Prudentzio Ikastetxearen aldamenean eraikitzen ari den Haurtzaindegia eraikuntza lanen obra zuzendaritza daramaten udal arkitektoek lanen hirugarren, laugarren eta bosgarren obra-egiaztagiriak luzatu dituzte. Hirugarren obra-egiaztagiriaren zenbatekoa HOGEITA HAMAZAZPI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO eta HAMABI ZENTIMOTakoa (37.997,12 €) da; laugarren obra-egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO eta HAMABI ZENTIMOTakoa (173.796,12 €) eta bosgarren obra-egiaztagiriaren zenbatekoa HAMAHIRU MILA LAUEHUN ETA HIRU EURO eta LAUROGEITA BAT ZENTIMOTakoa (13.403,81 €). Lan hauek Miguel Imaz, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Haurtzaindegia eraikuntza lanen hirugarren, laugarren eta bosgarren obra-egiaztagiriak onartzea erabakitzen du.

VI.- ESTALI GABEKO IGERILEKUEN OBRAREN BEHIN BETIKO ESLEIPENA.-

"Lazkaon estali gabeko igerilekuen eraikuntza" obraren lanak burutzea presakazko prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea zein egoera prozedimentaletan dagoen ikusirik.

2009ko martxoaren 12an, kontratazio organoak kontratua behin behingoz Altuna y Uria, S.A.ri esleitzea ebatzi zuela kontutan izanda.

...///...

...///...

Behin behineko esleipena lizitatzailerak guztiei jakinarazi zitzaizela eta halaber kontratatzailearen profilean argitaratu zela kontutan izanda.

Behin behineko esleitzailerak behin behineko bermea eta halaber eskatutako dokumentazio zuzigarri guztia aurkeztu duela kontutan izanda.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.- "Lazkaon estali gabeko igerilekuen eraikuntza" proiektuaren lanak burutzeko lehiaketa, udalarentzat proposamenik abantailatsuena izateagatik, Altuna y Uria, S.A.ren alde eta ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA HAMABOST ZENTIMOTako (859.343,75 €) prezioan, B.E.Z. barne, egindako kontratuaren behin behineko esleipena behin betikoa bihurtzea.

Bigarrena.- Indarrean dagoen gastuen aurrekontuko 1 0000.622.452.00.02 partidaren kargura gastua erabiltzea.

Hirugarrena.- Esleipendunak izan ez diren proposamen aurkezle guztiei behin betiko esleipena jakinaraztea.

Laugarrena.- Esleipendunari kontratuaren behin betiko esleipena jakinaraztea eta 2009ko maiatzaren 7an, eguerdiko 12:00etan izango den kontratu izenpetzea etor dadin deitzea.

Bosgarrena.- "Lazkaon estali gabeko igerilekuen eraikuntza" obra kontratuaren behin betiko esleipena kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Seigarrena.- Kontratua formalizatu ondoren, kontratistak proiektuaren Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztu beharko du, udalak, aurrez Segurtasun eta Osasun koordinatzailearen txostena ikusi ondoren, bere onarpena eman diezaion. Tramite hau egin ondoren birplanteatze akta egin eta lanei hasiera emango zaie.

VII.- ATAUN ETA LAZKAOREN ARTEKO MUGAKETA.-

Ataun eta Lazkao udal-barrutien arteko mugako lerroa eta bi udalerrien arteko mugarriak jartzeko 1942an jasotako akta oinarritzat hartuta, eta tokian hala egiaztatu denez hainbat mugarri falta direla kontutan hartuta, aipatutako udal-barrutiak mugatzen dituzten eta falta diren mugarriak ikuskaketu eta birjartzeko helburuarekin espedientea hastea beharrezkoa egiten da.

Hau honela eta Gipuzkoako udalerrien mugaketa arautzen duen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren aurrikuspenekin adostasunean, dagokion espedientea hastea proposatzen da.

Adierazitako ordenean, espedientea hastearen akordioa hartzearekin batera batzorde bat osatu behar da, batzorde hori alkatea, bi zinegotzi, idazkaria eta teknikari batek osatuz.

...///...



...///...

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere pardaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Ataun eta Lazkaoko udalerrien arteko mugako mugarrien ikuskaketa espedientea has-tea, ez dauden mugarriak bere lekuan birjarritz.

2.- Aipaturiko zereginak egiteko batzordea izendatzea, Lazkaoko Udalari dagokionean ba-tzorde hori honako hauek osatuko dutelarik:

- Alkatea.
- Bi zinegotzi:
 - Inazio Estensoro Eskisabel
 - Juan Manuel Serna Portugal
- Udal Idazkaria.
- Teknikaria: Udal Arkitekto Teknikoa.

3.- Akordio hau Ataungo Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta mugarriak jarrita dauden edo, falta direnen kasuan, egon behar luketen puntuetako lursailen jabeek jakinaraztea.

VIII.- GOIEKIKO 2008KO KONTUAK.-

Jarraian GOIEKI, S.A.ren 2008ko kontuak aurkezten dira Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Alkateak esaten du kontu hauek GOIEKI, S.A.ko Administrazio Kontseiluan onartu-ta daudela eta Udaletako onarpenekin hurrengo Batzar Orokorrera eramango direla honek bere onarpena eman dezaion eta batzar horretan bera izango litzakela Lazkaoko Udalaren izenean, Osoko Bilkura honek erabakitakoarekin bat, botua emango lukeena.

Osoko Bilkurak, aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botu-ekin, kontu hauek onartzea erabakitzen du.

IX.- GOIEKIKO ESTATUTUEN ALDAKETA.-

Jarraian Osoko Bilkuraren onarpenera jartzen da GOIEKI, S.A.k planteatu duen es-tatutu aldaketa. Proposatutako estatutu aldaketa ondoren zehazten diren artikuluen alda-ketan datza:

Gaur egungo estatutuetako 2. artikulua dioenari ondorengo gehitzea:

"Elkartea, dituen interes publikoko helburu soziala eta akziodunen kalitateagatik, irabazaz-morik gabekoa aitortzen da. Elkartek jaso litzakeen irabaziak, orotara, objektu soziala be-tetzeko erabiliko lirateke."

...///...

...///...

Gaur egungo estatutueta 15. artikulua aldatzea, jarraitzen agertzen den bezala geratuko litzatekelarik:

"Ekitaldi bakoitzetik lorturiko irabazietatik, guztia helburu sozialerako erabiliko da, behin erreserba legeletarako hornidurak eta legeak ezarritako baldintzak bete eta bazkide akzio-dunek mozkinen banaketari uko eginda."

Gaia eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, GOIEKIko estatutuen aldaketa hauek onartzea erabakitzen du.

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik haurtzaindegia eraikuntzaren inguruko hainbat zehaztasuni buruzko galdera egin eta alkateak erantzun egiten dio.

Bestalde, jendartetik baita ere, kexua adierazten da kalean osoko bilkura honen iragarpenik ez delako egin.

Alkateak erantzuten dio berak ere oraintxe bertan jakin duela zer gertatu den eta ikusten denez hutsegitea izan dela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du emango diren zerbitzu telematiko batzuen inguruan udalak etxe etxe banatu duen liburuxka bati buruz jakin nahiko lukeela; eta honekin lotuta gehitzen du legegintzaldi hasieran, orain dela urte terdi edo gehiago, batzordeko bilera bat egin zela gai hauen inguruan baina geroztik ez dela berriro bilerarik egin, eta ez dutela gai hauen berri izan. Eta gaineratzen du banatu den dokumentazio horretan tranpa txiki bat egiten dela, zerbitzu telematiko horietara heltzeko izenpe elektronikoko erreferentzi bezala ONA txartela aipatzen delako eta beste batzuk, derrigorrezkoak izanik eta erabilera arruntekoak, hala nola N.A.N. elektronikoa, ez direlako aipatzen. Eta guzti hau honela eta batzordean jakiteko aukerarik izan ez dutenez nahiko luketela azalpen bat.

Alkateak Serna zinegotziak eskatutakoari erantzuna ematen dio gai honen inguruko azalpen zabala eginez.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

